

# Nola BERRITU etxea, buruko min handi-handirik gabe

Arazoak saihesteko, oso garrantzitsua da lanak planifikatzea, aurrekontu bat baino gehiago eskatzea eta berme onak ematen dituzten profesionalak kontratatzea

**K**risiak geldiarazi egin du higiezi-  
nen merkatua, baina suspertu  
egin du etxebizitzak berritzeko  
joera. Etxez aldatzea oso zail dagoenez,  
etxea aldatzea izan daiteke irtenbidea,  
eta, horretarako, ezinbestekoak izat-  
en dira igeltseroak, iturginak, zurgin-  
ak... Azken bi urteetan, asko handitu  
da zerbitzu horien eskaera, eta berdin  
gertatu da eskaintzarekin ere; horren  
erakusgarri, nonahi ageri dira lanerako  
prest daudenen iragarkiak: postontzian,  
kaleargietan itsatsita, autobus-gelto-  
kietan... Zerbitzu horiek eskatzen dituz-  
tenak, nagusiki, etxez aldatu nahi zuen  
jendea da, azkenean egin ezinik gera-  
tu dena, eta eskaini, berriz, eraikuntza  
alorrean aritu ondoren lana galdu duten  
profesionalek eskaintzen dituzte, beren  
kontura lanean hasi beste aukerarik izan  
ez dutenek. Aukera asko dago orain, eta  
erabakiak hartu beharra dago: noiz hasi  
etxea berritzen, nondik hasi, zeini eman  
lana... Ez da erraza ongi asmatzea.


**NEURRIAK HARTZEA.** Sukalde edo  
komun berria jartzeak, egongela handit-  
zeak edo gela bati leiho bat ateratzeak  
ematen duen pozarekin, ez da hain astu-  
na gertatzen azulejuak haustea, tabikeak

edo trenkadak botatzea edo hormak zu-  
latzea. Dena bukatuta ikusteko gogoak  
arindu egiten ditu bideko eragozpen eta  
traba guztiak, baina beti ez da hala izat-  
en, eta kakalan bat egiten digutenean  
edo lana bukatu gabe geratzen denean,  
amorragarri bihurtzen dira etxeko lan  
horiek. Askotan ez dugu jakiten nola  
jokatu igeltseroa edo iturgina luzaroan  
azaltzen ez badira, etxeko lanek erago-  
zpenak sortzen badizkiete auzoei, edo  
istripu larria gertatzen bada.

Egoera horiek ez dira izaten batere go-  
zoak. Horregatik, hobe da horiek kon-  
tuan edukitzea, eta, badaezpada lanak  
hasi aurretik, zenbait neurri hartzea.

**1. Zer egin eta noiz.** Profesional bati  
deitu aurretik, erabaki egin behar dugu  
zer aldaketa egingo ditugun etxean eta  
noiz den horretarako garairik onena.

Etxea zein ongi geratuko zaigun  
pentsatzea eta horrekin amestea oso  
ongi dago, baina ez da ahaztu behar  
alderdi arrazionala. Ongi planifikatu  
behar da guztia, eta horrek lagunduko  
digu dirurik ez alferrik gastatzen eta  
ezustekoak saihesten. Hobe da, adibi-  
dez, komunean azulejuak eta altzariak  
ez aldatzea, aurrez hoditeria zaharra



■ Lanak hasi baino lehen bost bat aurrekontu alderatzea komeni da

saneatu gabe, bestela arazoak emango  
baitizkigu luze gabe, eta orduan askoz  
ere lan handiagoak egin beharko di-  
tugu hori konpontzeko. Lehenbizi, lan  
handi samarrak egin behar baditugu.  
Zarata, hautsa, hondakinak... pilatzen  
dira halakoetan, eta familiak etxetik  
atera behar izaten du aldi baterako;  
hori dela eta, ekaina, uzta, abuztua  
eta iraila dira hilabeterik egokienak,  
oporrak ere garai horretan hartzen  
ditu-eta jenderik gehienak.

Lanak noiz hasi erabakitzea izaten  
da beste kontu bat. Udako hilabeteak  
izaten dira onenak; bai, behintzat, lan  
handi samarrak egin behar baditugu.  
Zarata, hautsa, hondakinak... pilatzen  
dira halakoetan, eta familiak etxetik  
atera behar izaten du aldi baterako;  
hori dela eta, ekaina, uzta, abuztua  
eta iraila dira hilabeterik egokienak,  
oporrak ere garai horretan hartzen  
ditu-eta jenderik gehienak.

**2. Aurrekontuak eta bermeak.** Zer  
eta noiz egingo dugun erabaki on-  
doren, lanak egingo dituen norbai-  
ten bila hastea izaten da hurrengo  
pausoak. Profesional bati baino ge-  
hiagori eskatu behar zaie aurrekon-  
tua, materialen inguruko argibideak  
ere galdetu behar zaizkie, epez nola  
ibiliko diren... eta bakoitzaren ingu-  
ruan iritzia biltzeko aukera izanez  
gero, hainbat hobeki. Horiek guztiak

funtsezko alderdiak dira hautua egi-  
terakoan. Orain eskaintza ugariagoa  
da, eta une ona izan daiteke aurre-  
kontu bat baino gehiago eskatzeko.  
Bost edo sei aukera eskuan edukita,  
jakin ahal izango dugu, batez beste,  
zein den merkatuko prezioa, eta hor-  
tik asko urruntzen diren proposame-  
nak baztertzeko moduan izango gara  
(bai oso goitik dabiltzanak eta bai  
oso behetik dabiltzanak ere).

Ez da fidatu behar aurrekontu oso  
garestiekin, beti ez baita kalitatea-  
ren adierazgarri, eta are gutxiago fi-  
datu behar da oso merkeekin. Gauza  
bat da enpresek irabaziak murriztea  
lehiakorrak izateko, eta bestea  
zuhurkerian ibiltzea materialaren  
kalitatearekin eta bukalanekin.

Kontratzen dugun enpresak ber-  
me batzuk eman behar ditu, bestela  
oso garesti atera dakiguke-eta. La-  
gunen edo ezagunen iritzia biltzea  
lagungarria izan daiteke, baina, ho-  
rrez gain, enpresak lan-egutegi bat  
eskaini behar liguken, material onak  
bermatu behar lizkiguke eta, nola ez,  
lana ongi egingo duela. Eta ahal ba-  
da, idatziz egin dezala. ■■■

## ■ Fakturak legezkoak izan behar dira, lasaitasun bermea da hori

### ■ ■ ■ 3. Dokumentazioa eta zergak.

Bezeroarentzat lasaigarria da aurrekontu idatzia edukitzea, ordainketen ziurtagiriak eta lan-egutegia eskuratzera, eta ordainagiriak legearen arabera eginak izatea. Horako hori, jakina, ez da metodo akasgabea, eta norbaitek halakorik eskaintzen ez bada, ez du esan nahi profesional txarra dela. Baina bezeroak zenbat eta dokumentu eta informazio gehiago eduki, hainbat eta babestuago egongo da arazoak sortzen direnean. Horregatik, aurrekontua idatziz eskatzea komeni da, eta hor zehaztuta ager daitezela zenbat eta zer motatako materiala erabiliko den, zer prezio edukiko duen, eskulana zenbat kostako den, eta zerbitzuak non hasi eta bukatuko diren. Ordainketa nola egingo den ere azaldu behar du dokumentuak, eta enpresaren identifikazio-datuak ere bai. Lanak hasi aurretik, galdetu egin behar da zer sartzen den aurrekontuan, eta han ageri ez den beste zerbaitek ordaindu beharko ote dugun.

### 4. BEZa, zerga bat baino gehiago.

Langile batzuek legea saihestuz lan egiten dute, eta egoera hori, haien kaltetan ez ezik, gure kaltetan ere izan daiteke, batzuek ez baitute izaten erantzukizun zibileko aseguruirik. Zerbaitek hondatzen bada, ezingo die erantzun horrek sor ditzakeen gastuei. Lanbide-zergarik ez duen eta BEZaren hiruhileko adierazpena egiten ez duen profesional batengana jotzeak badu arriskua. Izan ere, hartzen den langileak BEZaren adierazpenik egiten ez badu, ezingo dugu haren aurkako erreklamaziorik egin auzitegietan, nahiz eta guri BEZa kobratu. "Gezurrezko BEZa" esaten zaio horri. Horregatik, fakturan Identifikazio Fiskaleko Zenbakia ageri dela egiaztatatu behar da

### 5. Dirua ongi kudeatu.

Etxea berrituko digun profesionala hautatu eta aurre-



kontua onartu ondoren, dirua arretaz eta arduraz kudeatu behar da. Ohikoa izaten da, lanei ekiteko, dirua aurrera dezala eskatzea bezeroari. Enpresak eskubidea du dirua eskatzeko, baina hobe da ez aurreratzea. Beste aukerarik ez badago, zertxobait aurreratu beharko da (ez kopuru handia), eta, jakina, faktura edo ziurtagiria eskatu. Arrazoizko kopuru bat finkatzen hasita, aurrekontu osoaren % 25 izan liteke.

6. Lanen amaiera. Bukaerako fakturak bat etorri behar du onartutako aurrekontuarekin, eta honako datu hauek ere agertu behar dute: bezeroaren eta enpresaren identifikazioa, lanen azalpena, material bakoitzaren prezioa, eskulana eta irteerak, eta zergak. Gainera, arauzko ordainagiria eskatzearekin batera (BEZ eta guzti), lanaren bermeei buruzko zehaztapenak ere agertzea komeni da. Ordainagiriak eta bermeak data eduki beharko dute, zigilua emana eta bezeroak eta zerbitzu-emaileak sinatuta egon behar dute. Lanak amaitu ondoren bezeroak akatsen bat antzematen badu edo langileek zerbaitek hondatu dutela ikusten badu, uko egin diezaike ordaintzeari, harik eta egindako kaltea konpontzen ez duten arte. Eta ordaindu badu, enpresari erreklamatu dio. Lehenbizian, ahoz egin dezake, eta onez onean; kasurik egiten ez badiote, ordea, bide ofizialetik jo, eta erreklamazio idatzi bat aurkez dezake. Gerta daiteke, adibidez, bigarren eskuko osagaiak erabili izana lanak egiterakoan (kableak, etengailuak...). Bezeroaren baitmenarekin soilik egin daiteke hori, eta berriak baino merkeagoak izan behar dute, jakina. Material erabiliek urtebeteko bermea izaten dute, eta berriek, aldiz, bi urtekoa. ■

**GEHIAGO JAKITEKO**  
[www.consumer.es](http://www.consumer.es)



## Arazoak saihesteko gakoak

- 1 **Ez kontratatu lardaskari bat;** hobe da nola lan egiten duen dakigu profesional bat hartzea.
- 2 **Langile autonomoa bada, egiaztatu haren NA edo IFZ.** Enpresa bat bada, egiaztatu egin behar da izena emana duela Ekonomia-Jardueren Zergan, eta idatzi egin behar da haren enpresa-erregistroaren zenbakia eta identifikazio fiskaleko kodea.
- 3 **Erantzukizun zibileko aseguruia duten profesionalak hautatu behar dira,** horiek erantzun egin baitiete kontratuz kanpoko kalteei (auzoei egiten zaizkienak, lokalei...).
- 4 **Etxe osoa berritu nahi bada edo sukaldea eta komuna aldatu nahi badira,** beste etxebizitza bat bilatu beharko dugu lanak bukatu arte.
- 5 **Gremio bakoitzari aurrekontu bat baino gehiago eskatu behar zaizkio.** Aurrekontuak alderatzea da erarik onena kalitate-prezioetan ongi asmatzeko.
- 6 **Aurrekontu xeheak eskatu behar dira,** idatziz: material bakoitzaren kostua, eskulanaren denbora... Behin aurrekontua onartuta, edozein aldaketa idatziz adierazi beharko zaio bezeroari.
- 7 **Ez da fidatu behar ahoz aurkeztutako aurrekontuekin edo oso merkeak direnekin.** Zalantzak argitzeko, aurrekontuak zer hartzen duen eta zer ez galdetu behar da. Hor dago batzuen eta besteen arteko aldea.
- 8 **Dirua aurreratu behar bada, ahal den kopuru txikiena aurreratu behar da.** Sekula ez aurreratu kopuru osoaren erdia baino gehiago.
- 9 **Lanak ez dira guztiz ordaindu behar erabat bukatzen diren arte.** Profesionalarekin hitzartu lanak amaituta egingo den ordainketaren zatia.
- 10 **Behin lanak bukatu direla, arretaz aztertu behar da zer material erabili dituzten, eta bukalanak nola eginak dauden.** Emaizta ez bada agindu digutenaren parekoa edo akatsak antzematen baditugu, enpresari erreklamatu behar zaio.
- 11 **Ordaintzeko unean, ordainagiri bat eman behar digute, eta lanei buruzko informazio guztia ez ezik** (lanen azalpena, eskulana...), bezeroaren eta enpresaren identifikazioak ere agertu behar du. Baita bermearen zehetasunak ere.
- 12 **Ordainagiria soilik onartu behar da aurrekontuarekin bat datorrenean.** Aldaketaren bat gertatu bada eta adierazi ez badigute, uko egin diezaikegu ordaintzeari.
- 13 **Ordainagiriak BEZa eduki behar du, data eta zigilua ere bai, eta bi aldeek sinatuta joan behar du.** BEZik gabe, ez dago egiazko bermerik, ez eta erreklamatzeko aukerarik ere.